

Berrigara



Sei eta
hamazazpi urte
bitartekoendako
hainbat aukera

aisialdia
jardunekin



Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



Zure sukaldea.





Santiagora bidean

ANE GARCIAINDIA

Goizeko seiak; leihotik barrena ilargia-
ren argitasun apala baino ez da gela
ilunean sartzen, eta dagoeneko ondo-
koen zurrumurru eta motxiletako kre-
mailera hots gaiztoak ametsen mundu-
tik aldendu eta egunona eskaini digu.

32 km., ai ama! Beste etapa bat aurre-
an, beste ibilaldi bat; eta ordainetan
zer? Logurea, nagitasuna, nekea, gosea,
izerdia, ezintasuna, beroa, hotza, oine-
tako babak eta bukatzeko, neke han-
diagoa eta baba minberagoak. Hala
ere, ez dezazuela pentsa hau egiptoar
esklabo baten egunkaria edo Hitleren
diktadurako judutarren koplak direnik,
ez horixe. Aipatu berri ditudan egoera
“zoragarri” hauek, guk geuk geure bo-
rondatez aukeratutako bidaia baten
osagaietako batzuk baino ez dira. Nola
litekeen? Hementxe doakizue azalpe-
na; hiru egunen buruan Santiago de
Compostelako kaleetan barrena kan-
tuan jardungo dugu!

Bart nahikoa barre egin genuen aurre-
ko herrian apurtxo bat mozkortuta ze-
bilen agure baten kontura. Hala ere,
baliteke gaur zoru hotz eta gogorrean
lo egin behar izatea; Amaiak ehun me-
troro hamaika argazki ateratzeko mo-
duko txoko aproposa aurkitzen baitu,
eta aterpera iritsi orduko gainontzeko

erromes guztiak lokartzeaz egongo
baitira.

Hala eta guztiz ere, egoera honetan
norberaren lehentasunak erabat aldatu
eta baloreak indartu egiten dira; hiz-
kuntza arrotzean hizketan pasa berri-
den erromesaren irribarre natural eta
goxoak koltxoi onenak baino askoz
gehiago balio baitu.

Hobeto ulertzeko; otorduak berak, nor-
malean errutina hutsa denak, ospaki-
zun kutsua hartzen du; bai hurrengo
eguneko etapa presta-
tuz, bai Patxiren txistek
entzunez edo oilasko
arrunt bat dastatuz.

Aipatu gainera, bidea
egitera bultzatu gaituen
motiboa edozein dela
(bai erlijiosoa, kulturala
edo aisialdikoa) ez dela
inondik inora ere bizial-
di eder honek eskainiko
digun bakar eta onena
izango. Hain zuzen ere
norberak bere buruare-
kin gogoeta batzuk egi-
teko aukera paregabea
baita. Era berean, ingu-
rukoak hobeto ezagu-
tzeko edo bakardadeaz

eta isiltasunaz gozatzeko beta eskaini-
zen digu; azken hau, gaur egun altxor
preziatua dena, alegia.

Ez dakit adierazi nahi nuena ganoraz
azaldu dudana, baina nolabait esatea-
rren, gisa honetako bidaia, abuztuan
Ibizako diskoteka batean bizi izan de-
zakegunaren antitesia da. Hala ere, ho-
nekin ez dut aditzera eman nahi aszeta
edo monje izan beharra dagoenik San-
tiagora erromesaldian joateko, ezta
inondik ere!

Laburbilduz, ez zaizue
damutuko mendiko bo-
tak jantzi eta egun gutxi
batzuetarako bada ere
“zibilizazioaz” ahaztu
eta kilometro gutxi ba-
tzuk ibiltzea.

Aipatu, azkenik, Santia-
go ez dela inondik inora
ere opari horiek guztiak
eskainiko dizkigun au-
kera bakarra, baino has-
teko ez dago batere
gaizki! A, eta ahaztu au-
rretik ez zaitezteela etxera
buelatu “albariño” tra-
goxka batekin lagundu-
tako olagarroa dastatu
gabe! Animo!<

«Hizkuntza arrotzean
hizketan pasa berri-
den erromesaren
irribarre natural
eta goxoak koltxoi
onenak baino askoz
gehiago balio du»



JUAN JOSE ALVAREZ
UNEDeko zuzendaria

«Hizkuntza
akademia berriarekin
hizkuntza titulu
ofizialak emango
ditugu UNEDen» **6.**



AMAIA CARRILLO
Aerobic irakaslia

«Edozeiñei
gomendatuko notsake
aerobica egittia.
Nahikua da erritmo
pixka bat izatia» **13.**



NEKANE GABILONDO
Jarduneko langilea

«Asteburuetako
aisialdi eskaintza 9
eta 11 urte bitartekoei
zuzenduko diegu
hemendik aurrera» **16.**

hi, gazte!



BEKAK
Gazteak eta Euskara. Lasarte-Oriako Udala. Bekaren helburua da gazteek euskararen gainean dituzten jarrerren diagnosis egitea. Epea: urriak 31.

IKASTAROAK
Prozesu industrial elektrikoaren automatismo ikastaroa. Bergarako Udal Enplegu Zerbitzua. Hamazortzi urtetik gorako langabeendako (gizonezko eta emakumezkoak). Arratsaldez. Epea: urriak 15.

Irratiko hastapena.
 Otxoki Komunikazioen Elkarte. Doan. CRAJI-en emango dira eskolak. Epea: urriak 27

Enplegurako prestakuntza-ikastaroak. Oarsoalde elkarte. Web programatzailea, harakintza, eta abar. Epea: irailaren 3tik azaroaren 15era.
Artea. Catalina de Erauso Arte Elkarte. Jarduera plastikoak, artisautzakoak, ikus-entzunezkoak eta abar. Epea: urriak 15.

JARDUNALDIAK
Antzerkia. Logroñoko XXII. Jaialdia. Epea: urriaren 4tik azaroaren 9ra.

SARIAK
Logotipoa. Zarauzko gaztelekurako logotipo lehiaketa. Epea: azaroak 15.
Bertso-papera. Orixeiko Udala. Epea: urriak 8.

LANA
Gizarte-dinamizatzailea. Beasaingo Udala. Diplomatura eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea: urriak 12.

Erdi mailako tituluduna (estatistikaria). Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa. Unibertsitateko diplomadun, ingeniari tekniko edo arkitekto tekniko izatea. Epea: urriak 10.

Kirol teknikari edo koordinatzailea. Altsasuko Udala. Gorputz Hezkuntzan diplomaduna edo irakasle diploma edukitzea gorputz hezkuntzan. Epea: urriak 13.

KARNETAK
 Nazioarteko Aterpekie, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:
BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefona: 943 77 91 57.
 E-mail: gzerbitzua@euska.net
 Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00.
 Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia gutziakoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Fritzixa
Piztia.

– Patata-landara pillia dago sustarra janda.
 Eztakitt nik ze fritzixa dabillen.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Irailak 27, eguna	28 °C	8 °C	– 1/m ²
Irailak 28, egubakoitza	22 °C	13 °C	5,3 1/m ²
Irailak 29, zapatua	24 °C	12 °C	2,2 1/m ²
Irailak 30, domeka	25 °C	11 °C	– 1/m ²
Urriak 1, astelehena	30 °C	15 °C	– 1/m ²
Urriak 2, martitzena	30 °C	14 °C	3,9 1/m ²
Urriak 3, eguaztena	19 °C	16 °C	11,3 1/m ²

mezak

Santa Marina
 Domekak: 11:00.
 11:30, 13:00.
 Zapatuak: 19:00.
San Pedro
 Domekak: 09:30, 12:30.
 Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
Sierbak
 Lanegunak: 19:30.
Osintxu
 Domekak: 11:30.
 Zapatuak: 19:00.
Elosu
 Domekak: 10:30.
Ubera
 Domekak: 10:30.
San Juan
 Domekak: 11:00.
San Prudentzio
 Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK
Santa Marina
 Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
San Pedro
 Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta
 Domekak: 11:00.
San Lorentzo
 Zapatuak: 20:00.
Angiozar
 Domekak: 11:00.
Monja Zaharrik
 Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
Mizpirualde
 Lanegunak: 11:45.
 Zapatuak: 17:30.
Antzuola
 Domekak: 09:00, 11:30.
 Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga
 Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak
 07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
 GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegarieta/Olabarrenetik irteerak
 07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
 GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 5:
 GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
ZAPATUA 6:
 ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
DOMEKA 7:
 ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
ASTELEHENA 8:
 MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
MARTITZENA 9:
 CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
EGUAZTENA 10:
 PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
EGUENA 11:
 GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

OGIA

DOMEKA 7 Konde

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK
 Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
 Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
 Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
 Ertzaintza. 943 76 53 40
 Osasun Etxea 943 76 24 40
 Asepeyo 943 76 16 43
 Pakea 943 76 13 49
 Angiozarko medikua 943 78 90 27
 Antzuolako medikua 943 76 62 23
 Odol emaleak 943 76 16 24
 Alkoholiko anonimoak 943 76 51 06
GARRAIOAK
 Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00
 Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
 Udal Artxiboa 943 77 91 32
 Igerilekuak. 943 76 20 51
 Kultur Etxea. 943 77 91 58
 Liburutegia 943 77 91 62
 Kiroldegia 943 76 56 41
 Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
 Erregistroa 943 76 13 15
 Jardun 943 76 36 61
 Idolaz 943 76 65 08
 Jubilatuen Etxea. Bergara 943 76 21 40
 Antzuolako jubilatuen elk. 943 76 62 71
 Postetxea 943 76 26 85
 Bedelkar 943 76 04 68
 Akulu AEK 943 76 05 18
 Udal euskaltegia 943 76 44 53
 Bergarako notaritza 943 76 10 73

oharrak

■ **1947an jaiotako enafaria** urriaren 27an Tartufo jatetxean, 21:00etan. Joan etorriko autobusa egongo da. Izena ematea (6.800 pta.) Euskadiko Kutxan urriaren 20ra arte.

■ **1933an jaiotako enafaria** urriaren 28an Torrekua erretegiaren. 13:00etan, Santa Marinaran meza izango da. Izena ematea (depositoa, 1.000 pta.) Intxorta tabernan edo Torrekua erretegiaren.

■ **1944an jaiotako enafaria** azaroaren 24an Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Meza Santa Marinaran, 19:00etan. Izena ematea azaroaren 19ra arte Sanchez ileapaindegiaren (943 76 23 70) edo 943 76 42 08 zenbakian (Arantza Alberdi).

■ **Batasunak** deituta, herri batzarra martitzenean, urriaren 9an, Elementaleko aretoan, 19:00etan. Txostenak Arrano tabernan jaso daitezke.

■ **EAJK** deituta, Juan Mari Juaristi Gipuzkoako Buru Batzarreko lehendakariarekin bilera izango da eguaztenean, urriak 10, Batzokian, 20:00etan.

■ **San Xoxepe** erretiratuen elkarteak urriaren 10ean Pagoetara, Aiara eta Tolosara joateko irteera antolatuta du. Irteera goizeko 9etan egingo da. Izena ematea (2.000 pta.) eta argibideak 943 76 21 40 zenbakian.

■ **Jantzigintza** ikastaroa Anezka akademian, Espaloian. Argibideak eta izena ematea 943 76 59 25 telefonoan.

jardunen agenda

■ **Jolasleku ibiltaria:** Lehen hezkuntzako neska mutikoei zuzendutako jolasak. Gaur, urriak 5, espolioan.

■ **Astebukaerako aisialdia:** Bihartik aurrera (zapateria), 9 eta 11 urte bitarteko gaztetxoendako kartzela zaharra zabalik daukazue, arratsaldeko 4retatik 8etara. Astebukaera honetako ekintzak: zapatuan futbolin eta pin poi txapelketak eta domekan, jolasak: traineru jolasa, zapi-jolasa,...

*Hurrengo alean,
urriaren 11tik 18ra
bitarteko enafaren zorian agurrak
argitaratuko ditugu.*



Unai Gabilondo
5ean 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



Juan Carlos Gallastegi
6an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Mikel eta Garazi.



Eider Arantzabal
7an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki, ahizpa Irati.



Ahetze
6an 11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

zorionak!



Ibai Agirrezabal
6an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Joseba Elortza
6an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki, Andoni eta Iñigo.



Eider Larrañaga
6an 10 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Olaia Zengotitabengoa
9an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Franco
7an 6 urte.
Zorionak politiki hori!
Etxekoak.



Ainhoa Goienetxea
5ean 9 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Leire Altube
8an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Oihane.



Irene Jauregi
8an 2 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Miriam Boizas
5ean 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Leire Mellado
8an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Asier.



Maria Cid
8an 4 urte.
Urte askotarako!
Laura eta gurasoak.



Gotzon Barrenetxea-Arando
6an 78. Urte askotarako!
Etxekoak.



Sara Moreno
6an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Kristina Etxeberria
6an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Ainhoa.



Jon Urkia
6an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Irati Breña
5ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Lander.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



BANKINTER

%3,5 etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera komisioa:
%1.
35 urte bitartearaino

- Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Bergarako UNEDek azaroaren 16an aurkeztuko du ikasturte berria, osoko bilkuren aretoan. Eskolak, baina, urriaren 19an hasiko dira, hainbat berritasunekin, gainera. Juanjo Álvarez Bergarako zentroko zuzendariak berritasun horien gainean berba egin digu.

G. Matrikula epea zabalik egonda, dagoeneko mugimendua igarriko duzue zentroan.

E. Momentuz, beste urte batzuetan baino jende gehiago dabil. Dena dela, horrek, oraindik, ez du esan nahi iaz baino jende gehiago matrikulatuko denik. Ikusteko dago.

G. Berritasunen artean, hiru lizentziatura eta diplomatura berri bat dituzue ikasturte berrirako.

E. Bai, lizentziaturei dagokienez, Ingeles Filologia, Pedagogia eta Psikopedagogia eskainiko ditugu. Diplomaturan, Gizarte Heziketa.


G. Zergatik horiek? Eskaera dagoelako?

E. Guk ez dugu irakas-kuntza-autonomiarik. Madrilgo zentroan, duela sei hilabete Gobernu batzordea egin eta erabaki zuten zein eskaintza berri egingo zuten han, Madrilen. Gainerako zentrook eskaintza horretatik aukeraketa egiten dugu. Guk erabaki dugu Bergarako zentroan lau ikasketak eskaintzea, Madrilek aukeratu jarri dituen guztiak.

Guretako, Ingeles Filologia ez, baina Pedagogia, Psikopedagogia eta Gizarte Heziketak oso multzo berezia egiten dute, batez ere, irakasle ikasketak edo Psikologia egin ostekoek aukeratzeko dute-eta. Ingeles Filologiaren kasuan, azken urteetako ikasketa desiratuenetakoa da. Jende ugari

JUAN JOSE ALVAREZ
Bergarako UNEDeko zuzendaria

«Hizkuntza akademiarekin titulu ofizialak emango ditugu»



Juan Jose Álvarez, UNEDeko zuzendaria.

galdetu izan du ea noiz eskainiko genuen. Gainera, ikasketa bera egiteaz gain, beste aukera batzuk ere eskainiko ditu. Esaterako, Zuzenbidea ikasten diharduen batek konfigurazio libreko ikasgaia har dezake, eta ingeles juridikoa ikasi.

G. Plan zaharretik berrirako jauzia ere egingo duzue hainbat ikasketatan.

E. Filologia Hispanikotan, Historian eta Psikologian.

G. Berritasun nagusia, aurtun, hizkuntzen arlokoa da.

E. Hizkuntzen akademia bat izango da. UNEDek dituen hirurogeita hamar zentroetatik, hamar izan gara aukeratuak proiektu berri hori aurrera eramateko. Hamar horien artean, Bergarakoak eskaintzen ditu hizkuntza gehien. Alemana, ingelesa eta frantsesa emango ditugu, baita galegoa eta euskara ere. Aukeran zuden guztiak, italiara eta katalana izan ezik.

G. Zein metodologia erabiliko duzue?

E. CD-ROMak, zintak, bideoak... Azken batean, urrutiko metodologia da. Baina ez dugu horretan geratu nahi. Plan mistoa eraman nahi dugu aurrera, hau da, klase presentziala ere egongo da: astean birritan edo bi orduz, behintzat, ikasleak aukera izango du hona etorri eta tutorearekin egoteko.

Distantziako zentro bat gara, baina ikasleek laguntza behar izaten dute, eta gainerako ikasketekin egiten dugun moduan, hizkuntzetarako tutoretza orduak egongo dira. Bestela, iruzur txiki bat izango litzateke.


Hizkuntza bakoitzak 150 orduko hiru maila izango ditu: baxua, ertaina eta goi maila. Eta titulu ofizialak emango ditugu. Euskararen kasuan, Jaurlaritzarekin harremanetan dihardugu, UNEDek errekonozimendu ofiziala jasotzeko, euskaltegiek duten moduan. Gainera, bi arlotan banatuko ditugu euskarako eskolak: bate-tik, alfabetatu edo hizkuntza ikasi nahi dutenentzat, eta bestetik, perfilak edo dena delako azterketak gainditu nahi dutenentzat.

«Euskararen kasuan, harremanetan dihardugu Jaurlaritzarekin errekonozimendu ofiziala jaso nahi dugu-eta»

Ondartza baserria birgaitu eta eraberritu egingo du Diputazioak

Besteak beste, autopistako tunelen zaintzarako zentroa jarriko dute hantxe

Ondartza baserria birgaitu eta eraberritzeko erabakia hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Proiektua idazteko lana ere esleitu dute. Batetik, autopistako tunelen zaintzarako zentro izango da. Bestetik, autopistaren inguruko erakustoki egonkorra.



Autopistako lotuneetako bat Ondartza baserriaren alboan egongo da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepideetako departamentuak Ondartza baserria birgaitu eta eraberritzeko asmoa du. Lan hori egiteko proiektuaren idazketa ere esleitu du; ur&ma SL enpresari, hain zuzen, 6.225.000 pezetan.

Gasteiz-Eibar autopistako lanak direla eta, zehazkiago, Bergara eta Eibar lotuko dituen autopista zatiko lanak direla eta, Ondartza baserria guztiz desjabetu zuten Diputazioak, eta ordu-

tik, haren jabe da. Orain, erabilera berria ematea erabaki du, Diputazioko iturrien esanetan.

ERABILERA BIKOITZA

Erabilera hori bikoitza izango da, baina autopistaren lanekin lotua. Batetik, behe solairuan, bilera gela bat eta autopistako

lanei buruzko informazio panelak egongo dira. Erakusketa egonkorra izango da, eta programatutako bisitak egongo dira.

Goi solairuan, autopistako tunelen zaintzarako zentroa jarriko dute, tunelen funtzionamendu egokia ziurtatzeko. Diputazioko iturrien esanetan, zen-

tro horrek Bergaran eraiki dituzten tunelen zaintza egingo du, hau da, Lezarri, Gallastegi eta San Martzialgo tunelen zaintza.

GARRANTZI HISTORIKOA

Birgaitzeaz gain, eraberritu ere egingo dute baserria Diputazioko iturrien esanetan. Ondartzak interes historiko handia du: gaur egun nahiko itxuraldatua dagoen arren, oraindik XVI. mende-ko elementuak kontserbatzen ditu; bestalde, eta desagertuta dagoen arren, San Adrian de Ondartza ermita zegoen baserriari lotuta, eta horrek baserriaren garrantzia areagotu egiten du. Gainera, Bergaran historikoden Ondartza jauregiko familiaren sorburu ere bada baserria. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak interes arkeologikodun gune izendatuta dauka.

Mayc-eko langileek greba egin dute astean

Candy-Hoover enpresako langileek greba egin zuten martitzen eta eguaztenez. Enpresa ituna izan da arrazoia, izan ere, langileek eta enpresako zuzendaritzak irailan hainbat bilera egin ostean, ez dute enpresa ituna adosterik lortu.

Enpresa ituna negoziatzeko, eskaera zerrenda bat prestatu zuten langileek ekainean. Eta zerrenda hori da irailan negoziatzen aritua direna. Besteak beste hona-

ko eskaera hauek jasotzen ditu plataformak: akordioak urtebeteko iraupena izatea, soldatak %6 igotzea, lan egitaraua bi aldean artean adostea, 2001ean 1.713 orduko lanaldia eta, aurren, gutxienez 60 urte duten langileek %100 kobratuta erretiratzeko aukera izatea.

Langileen ordezkarien esanetan, astelehenean muga gabeko grebari ekingo diote, zuzendaritzaren erantzunik jaso ezean.



Langileak, martitzenean San Martin plazan egindako kontzentrazioan.

Drogamenpekotasun heziketa filmen laguntzaz

Datorren eguaztenean, urriaren 10ean, zinemaren bitartez egiten den drogen mendekotasunen osasun-heziketarako programa hasiko da. Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta herriko ikastetxeek antolatzen dute ikasturtero programa hori, eta laugarren maila eta LOGSEko lehen mailako ikasleen gurasoak zuzenduta dago. Programak lau saio izango ditu: bakoitzean film bat emango dute eta, ondoren, eztabaida tartea ere izango da.

Antolatzaileen ustez, filmetako istorioak eta pertsonaiak abiapuntu motibagarriak dira hezkuntza, osasuna eta drogen mendekotasunei buruz hausnartu eta ikasteko. Aurtengo progra-



Billy Elliot da heziketa programan eskainiko duten filmetako bat.

maren helburua honakoa da: substantziak hartzeko orduan, gazteek dituzten presio eta influentziak identifikatu eta era positibo eta irmoan kontra egitea.

Lehen saioa eguaztenean izango da: 18:30ean, No-

vedades aretoan, *El bola* filma emango dute; abenduaren 11n, *Bailame el agua* emango dute; otsailaren 19an, *Mi dulce*; eta apirilaren 17an, *Billy Elliot*. Guztiak aipatutako leku eta orduan izango dira.

Aranzadi ikastola omenduko dute Kilometroak jaian

Datorren domekan, hilak 7, Beasainen egingo den Kilometroak 2001 jaian, Aranzadi Ikastola omenduko dute. Bergarakoarekin batera, Gipuzkoako beste ikastola askok ere omendaldia jasoko dute, Kilometroak jaia antolatu duten ikastola guztiek, hain zuzen ere. Gipuzkoako ikastolen aldeko jai horrek 25. urteurrena beteko du aurten. Hori dela eta omenduko dituzte ikastolok. Ekitaldia 12:00etan izango da, eta ikastoletako ordezkariak oroigarri bana emango diete. Ekitaldi berean, Zumarraga-Urretxuko ikastolari pasatuko diote datorren urteko lekukoa.

Zapatuan Gorlako kantina berriz zabalik

Bihar, zapatua, zabalduko dute berriro ere kantina, Gorla Kantina aurrerantzean, horixe baita arduradun berriek jarri dioten izena. Abuztuaz geroztik itxita egon da, orduko arduradunek ustiaketa utzi zuten-eta. Udalak berriro esleitu du, eta, oraingoz, eguen, egubakoitz, zapatu, domeka eta jai egunetan egongo da zabalik. Hala ere, posible da aurrerago egun gehiago zabalik egotea, betiere kantinaren funtzionamenduaren arabera.



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

**KONDE
PANADEROKUA**



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

Euskal Herriko bisitari gero eta gehiago ditugu udan

Aurten, ekainaren 15-etik irailaren 30era egon da irekita Turismo Bulegoa. Irail osoan irekita egon den lehen aldia izan da. Hori, jakina, kontsulta kopuruan igarri da: udan, 2.638 kontsulta jaso dituzte, eta iaz, 1.887. Konparaketa egitean, baina, kontuan hartu behar da iaz irailaren 17ra arte egon zela zabalik Turismo Bulegoa. Dena dela, hori kontuan hartuta ere, aurten turista gehiago izan ditugu herrian. Iraileko azken bi asteetan, esaterako, 751 kontsulta jaso dituzte.

Datu orokorreki begiraturik gero, 2.638 kontsulta horietatik, herrikoek bertakoek 571 egin dituzte. Euskal Herrikoak, batez ere, Bizkaia eta Gipuzkoakoak, 1.063 kontsulta izan dira. Estatuko gainerako lurraldeei dagokienez, 700 kontsulta jaso dira, ohi bezala kataluniarrenak eta madrildarrenak, batez ere. Horrez gain, Frantziatik 92, Erresuma Ba-



Laurogeita hiru bisitaldi gidatu egin dituzte, 943 lagunendako.

tutik 53, Amerikatik 49 eta Asiatik etorritakoen hiru kontsulta jaso dituzte.

EUSKALDUNAK GORA

Aurten, iraileko bigarren hamabostaldian froga gisa ireki dute bulegoa. Emaitzak, baina, onak izan dira, eta horregatik, datorren urtean ere irail osoan irekita egongo da, seguruenik, Turismo Bulegoa. Jende ugari etorri da iraileko bigarren hamabostaldian. Euskal Herriko-

ak bertakoak, egubakoitz eta zapatueta, batez ere. Horren ildotik, Turismo Bulegoko arduradun Xabier Aranburuk Udalak aurrez egindako lana azpimarratu du. Izan ere, Udala Euskal Herriko hainbat elkarterekin egon da harremanetan herria ezagutzera emateko.

Herriko jatetxe eta ostaluetei buruz, iaz, 47 kontsulta jaso zituzten. Aurten, 111 kontsulta jaso dituzte, 257 lagun izenean.


Ekonomi jardueren gaineko zerga

2001eko ekonomi jardueren gaineko zergaren erreziboak ordaintzeko epea irekita dagoela jakinarazi nahi die Udalak herritar guztiei. Ordainketa epea azaroaren 10ean amaituko da. Ondoren egindako ordainketak errekaruarekin egingo dira. Ordaintzeko era eta lekuak honakoak dira: erreziboan ordainketa banketxeren batean helbideratuta duten zergadunei, banketxe beraren bidez bidali eta kobratuko zaie. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek, aldiz, datozen egunetan euren etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharko duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxe edo udal bulegoetatik pasa daiteke ordainketa egiteko. Agiria urriaren 31 baino lehen jaso ezean edota azalpenetarako, Kontu-hartzailetzako bulegoetatik pasa daiteke.

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92



Masterreka 19, behea. 943 76 46 53.

Ametz

TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA

Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.

**Antsietatea, stressa, tabakoa,
depresioak, gizentasuna**

Tratamendu pertsonalizatuak
eta ondorio gabeak.

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

IKUSBI

**ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK**

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

ATARI

Zure auzo elkarteko, etxebizitza eta garajeko arazoak konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkia. 574
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxe 943 76 38 41

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta untxia
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Berrigara

467 zenbakia.
2001eko urriaren 5a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereizibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Peru Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Orteaga & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugaldel.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Maitane Arizabaleta, Juan Martin Elexpuru, Gorka Orteaga.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Jardun.

Tirada: 5.600 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako eraren eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



atrebentzia ezpada

Ze pentsatzen jatzu Diputaziñuak, froga moduan, jarri daben autobus zerbitzua astebukaera gabetarako?



Garbiñe Martinez

Ondo. Hola, jendia autobusian ibilliko litzake, automobilla hartu barek. Akzidentiak ebitatzeko modu bat da.



Ignazio Basterra

Ondo. Istripu larregi egoten die ordu txarretan. Uste dot gaztiak kontzientziauko diela; hortara, parranda gehixago egin leike.



Aintzane Zubia

Ondo. Hola, ez litzake automobillik hartu biharko. Gaiñera, karnetik ez daukan jendiak be urtetzeko aukeria eukiko leuke.



Jose Luis Akizu

Ondo pentsatzen jat. Kotxe txikixan-eta ibiltzia peligrusuagoa da. Kontutan eukitta, gaiñera, asteburu gabetarako dala...



Nekane Egaña

Oso ondo. Gaztiok urten egitten dozue gabetan, baita edan be. Autobusakin ez litzake automobillik hartu biharko.



Mikel Mondragon

Ondo, gazte jendiak urten eta edan egitten dabelako. Baiña, betibe, autobusan ordutegixa jendian ohituretara egokittu bihar da.

tira biraka bittor rodriguez



adituen esanetan

Hiperaktibitatea

Eskolaurreko irakaskuntzan izaten den arazorik ohikoetako bat hiperaktibitatea da. Arazo horren eragina haurrengan ezberdina izaten da herrialde batetik bestera (%1-13 bitartean egoten da). Hiperaktibitatea aditasunaren eta autokontrolaren defizita izango litzateke, eta izenak diosen moduan, oinarritzko ezaugarrietako bat gehiegizko jardura da. Besteak beste, harremanetarako zailtasuna, autoestima baxua, oldarkortasuna eta ikasketako zailtasuna hiperaktibitatearekin lotuta daude.

Lehenbiziko urteetan, horrelako haurrak gobernatzea zaila izaten da, eta gurasoek uste izaten dute haurrak txikiak eta energikoak direlako gertatzen dela hori. Hala ere, urte batzuen buruan, haur gehienak esanekoak bihurtzen direnean, hiperaktiboek problematikoak izaten jarraitzen dute. Euren gehiegizko jardueraren erruz, haurrak gertutik zaintzea beharrezkoa izaten da, istripuak saihesteko. Zenbaitetan, lo egiteko arazoak, jateko ohitura



JOSE RAMON FERNANDEZ

Psikologoa

«Hiperaktibitatea aditasunaren eta autokontrolaren defizita da. Gurasoen zeregina oso garrantzitsua da»

txarrak eta euren anai-arrabekiko edo lagunekiko oldarkortasuna ere azaltzen dute. Era berean, hiperaktiboak diren haurrak apetaitsuak izaten dira.

Nerabezaroan, berri, ikasteko duten zailtasuna dela-eta, askok ikasketak uzten dituzte. Erantzukizun eza oso ohikoa da adin horretan, eta tabakoarekin, alkoholarekin edo drogekin gehiegikeriak egiten dira batzuetan.

Hiperaktibitatea konplikazio perinatalen ondorioa izaten da

batzuetan (haur goiztiarra, jaiotzean pisu txikia dutenak...). Faktore genetikoek ere zerikusia izaten dute hiperaktibitatea agertzeko, eta familia giroa estresagarria bada, haurrak horren aurka erreakzionatzen du.

Tratamenduaren oinarria da jokaera negatiboa txikitzea eta, aldi berean, jokaera positiboa indartzea. Beraz, gurasoen zeregina are eta garrantzitsuagoa da hiperaktibitate kasuetan. Haurrekin "keinu" emozionalak (irribarrea, adibidez), behar duten arreta eskaintzea; haurrei entzutea klabea da.

bergarako zuhaitzak



Atlaseko zedroa, Errekalde parkean.

Atlaseko zedroa


Cedrus atlantica

Koniferen taldeko zuhaitz ezaguna. Enbor zuzena, kopa konikoa eta azal zartatua du, adar luzexka eta horizontalak. Hosto azikulak berde urdinxkak dira eta hiru urte inguru iraun dezakete jausteke. Urria eta azaro bitartean loratzen da eta marroi koloreko kono bakarti eta zilindrikoak ematen ditu. Lehenengo urteetan astiro hazi arren, gerora bizkortu egiten da, eta 700 urte inguru bizi daiteke.

Atlas mendikatean bere kasa bizi arren, Euskal Herrian nekez aurkienezake gure lorategi eta parkeetatik kanpo. Sarritan, apaingarri gisa erabiltzen da edertasunagatik, eta lorategietarako hainbat barietate atera dituzte, besteak beste, Aurea, Glauca eta Glauca pendula.

Bergaran, esaterako, Errekalde parkean dago espezie hau. Aipatu beharra dago zedroetako baten egoera oso kaskarra dela; aurki botako dute. Armillaria lurrean dagoen onddo xaprofito bat da, eta onddo honek sustrai eta egur ustelduetan eragiten du. Bestalde, landare-zorriek azikulak (hostoak) jaten dizkiote, eta, horren ondorioz, adarren eta sustraien oreka apurtu eta sustraiak usteldu egiten dira. Batzuek diotenez, orain dela urte batzuk, Errekaldeko familian kide berri bat jaiotzen zenean, zuhaitz bat landatzen zuten, jaioberriaren omenez.

Egurra iraunkorra, erretxinaduna eta biziki usaintsua da, zurgintza eta eraikuntzarako oso estimatua; destilatu gero, farmazian eta lurringintzan erabiltzen den esentzia bat ematen du.



Herrialdearen arabera, haurren %1 eta %13 artean izan daitezke hiperaktibo.

Testua: Maitane Arizabaleta.

aisialdia *jardunekin*

Kuadrillategi egitasmoa izango da aurtengo berritasunetako bat

Jardun euskara elkarteak kurtso berria hasi du. Umeendako eta gazteendako aisialdirako eskaintza zabaldu, eta erantzun ona jaso dute. Bergarako ume eta gaztetxo guztiek dute tokia Jardunen eskaintza horretan, eta era guztietako jarduerak egiteko aukera izango dute. Hainbat berritasunekin datorkigu, gainera, denboraldi berria: batetik, kartzela zaharreko asteburueta aisialdian hainbat aldaketa egin dituzte; bestetik, Kuadrillategi egitasmoa abian jarriko dute.

Euskara beti oinarri duela, hainbat arlotan egiten du lan Jardunek. Kultura Saila, Ume eta Gazteen Saila, eta sentsibilizazio arloaz eta kanpo harremanez arduratzen den saila ditu. Gaur egun, berebiziko garrantzia du Ume eta Gazteen Sailak; Jardunen proiektu gehienak sail horretara bideratuta daude.

Duela zortzi bat urte sortu zuten sail hori; hasiera hartan, 16 bat urteko jendearekin sortu zen, Gazte Sail moduan, «baina, poliki-poliki, txikiagoekin ere lan egin beharra zegoela ikusi genuen», azaldu digu Nekane Gabilondok, Ume eta Gazteen Saileko arduradunak. Gauzak horrela, hainbat proiektu sortu dira sei eta 17 urte bitarteko ume eta gazteendako.

ASTEBURUAK KARTZELAN

Urte dezente dira kartzela zaharra gaztetxoendako aisialdigune bihurtu zela. Gaztetxoek, askotan, ez dute jakiten asteburueta zer egin edo nora joan. Jardunek horretarako aukera paregabea eskaintzen die, eta era guztietako ekitaldiak antolatzen dituzte gazteekin eurekin batera: jolasak, irteerak, eskulanak...

Aurten, baina, aldaketak egin dituzte aisialdirako eskaintza horretan. Orain arte, 11 eta 14 urte bitartekoendako izan dira asteburueta ekintza hauek. Hemendik aurrera, oster, 9 eta 11 urte bitartekoek ere izango dute asteburueta kartzela zaharrera joateko aukera. Hezkuntza sistema aldatu egin da; Lehen Hezkuntza 11 urterekin bukatu, eta 12 urterekin ikastetxez aldatzen dira gaztetxoak, DBH ikasteko. Aldaketa horrekin, jarrera aldaketa ere nabaritu dute Jarduneko arduradunak: 12 urtetik aurrerakoak gero eta gutxiago joaten dira asteburueta kartzela zaharrera. Horregatik, adin tartea aldatzea erabaki dute.

Horrek ez du esan nahi, hala ere, DBHkoak Jarduneko aisialdi jardueretatik kanpo geratu direnik. Hilean behin eurekin batera hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa daukate Jarduneko arduradunak. Kontua da, neurri batean, proposamenak eta antolaketa euren eskuetan lagatzea. Nekane Gabilondoren esanetan, «gazte-

txo horiekin daukagun harremana ez dugu galdu nahi, eta, bestalde, ez genuen nahi 12 urtetik aurrerakoak inolako eskaintzarik gabe laga».

HAINBAT PROIEKTU ABIAN

Sei eta hamaika urte bitarteko umeendako beste eskaintza bat ere badu Jardunek, duela hiru urte abian jarri zuena. Euskara maila baxua dutenei euskara errefortzuak eskaintzen dizkie. Herriko hiru ikastetxerekin harremanetan daude Jarduneko arduradunak. Euskara errefortzuetan euskaraz berba

egiteari ematen zaio garrantzi handiena. Kontuan hartu behar da etortzen diren gehienek guraso erdaldunak dituztela. Kontuan hartu beharreko beste datu bat zera da: ume batek bere denboraren %16 bakarrik pasatzen du eskolan, eta denbora horren erdia bakarrik erabiltzen duela berba egiteko. Hortaz, nahiz eta ume guztiek gaur egun D ereduan ikasten duten, askok izaten dituzte arazoak euskaraz

**Asteburueta
aisialdia 9 eta 11
urte bitarteko
neska-mutikoei
zuzendu die
Jardun elkarteak
lehen aldiz**



Lagunartean eta euskaraz ondo pasatzeko aukera eskaintzen du Jarduneko ume eta gazte sailak.



berba egiteko. Euskara errefortzuetan euskara erabiltzea da helburua, era naturalean, jolas eginez.

Gazteei zuzendutako beste ekitaldi bat *Bergara ezagutzen* lehiaketa da, 14 eta 17 urte bitartekoendako, hain zuzen ere. Urtetik urtera, arrakasta handiagoa lortzen ari da, gainera. Hainbat talde elkarren kontra lehiatzen dira; izenak berak esaten duen moduan, Bergarari buruzko galderak eta frogak izaten dira lehiaketaren oinarri. Abenduan egiten du Jardunek lehiaketa horretarako deialdia, eta hiru hilabete irauten du.

KUADRILLATEGI, PROIEKTU BERRIA

Hauxe da Jardunen aurtengo apustu berria. Proiektu hori abian jarriko duten lehen aldia izango da aurtengoa, eta bi urte iraungo du. Hamalau urteko


gazteendako izango da Kuadrillategi; Bergarako zortzi koadrilak eman dute izena, guztira, 80 bat gaztek. Proiektu horren helburua da hizkuntza ohiturak aldatzea edo finkatzea. Proiektuaren arduradunak, Idoia Olanok, zera azaldu digu: «Askoz errazagoa da banakoengan baino, talde batengan eragitea, horregatik egingo dugu lan koadrilekin». Gainera, 14 urteko gazteekin lan egingo dute proiektu horretan, eta adin horretako gazteendako, batez ere, koadrila oso elementu garrantzitsua izaten da.

Programa hau abian

jartzeko proposamena Lasarteko Kuadrillategi izeneko elkartetik jaso zuten. Jarduneko bost dinamizatzaile aritu dira irail osoan ikastaroak egiten eta beharrezko formazioa jasotzen. Horrela, dagoeneko gertu dute guztia urriaren 20an, zapatuan, Kuadrillategi estreinatzeko.

Izena eman duten koadrilak 15 laguneko taldetan banatuko dituzte; koadrila ezberdinetako lagunez osatutako taldeak izango dira. Zapaturo lau orduz elkartuko dira talde horiek hainbat lokaletan, eta bi eratako ekintzak egingo dituzte: hizkuntza eta kultura tailerrak, hain zuzen ere. Hizkuntza tailerren helburua izango da hizkuntza sozmen lantzea eta hizkuntzarekin jolasten ikastea. Aisialdiko ekintzak direla kontuan hartuta, era arinean egingo dituzte, betiere, hizkuntza-arietok. Bestalde, kultura tailerrak egingo dituzte, eta gazteak eurak izango dira tailer horietako protagonistak; eurek erabaki beharko dute zer egin nahi duten.<

Kuadrillategi egitasmoaren helburua hizkuntz ohiturak aldatzea edo finkatzea da, koadrilekin lan eginez



Zabor ugari Zurrari

Herritar batzuek BERRIGARARA deitu ondoren, **astelehenean Zurrari** ateratako argazkia duzue honako hau. Antza denez, azken hilabeteotan astero-astero **zaborra lagatzeko ohitura** hartu dute hara joaten diren zenbait herritarrek. Normalean, Zurrako iturriaren ondoan uzten dute zaborra eta beraien jokaera lotsagarria salatu nahi izan dute lerro hauen bitartez BERRIGARARA deitu dutenek. Dagokionari beharrezko neurriak hartzeko eskatu nahi diote, horrelakorik errepika ez dadin. **Inguruan ez dago zakarrontzirik** eta herritar batzuk arduratu izan dira azkenaldian ingurua txukuntzeaz.

Joan zen San Migel!

Hainbat herritan izan dira joan den asteburuan Sanmigelak, eta baita **Angiozarren** ere. Ekitaldi ugari egon ziren asteburu osoan: dantzaldiak, mus eta briska txapelketak, umeendako jolasak... Aipagarrienetakoa, urtero moduan, **San Migelen zeruratzea** izan zen, domeka iluntzean. Iaz kosta zitzaion azaltzea; urriaren 27an topatu zuten Legazpin. Aurtengoa ere ez da azaldu oraingoz. Ia, bada, noiz eta non azaltzen zaigun Angiozarko San Migel!



J.A. MIKEO



Luisa Agirrezabalek 105 urte

Bergarako **emakumerik nagusiena** da Luisa. Beharbada, baita Debagoiena osoko nagusiena ere. Datorren martitzenean, **urriaren 9an, 105 urte** beteko ditu. Urte asko dira etxetik irten ez dela, baina osasunez nahiko ondo dago Luisa. Bere urtebetetzea dela-eta, Bilbon eta Zaragozan bizi diren hainbat senitartekoren bisita espero du Luisak ilusio handiz. Gero, bazkaria ere izango dute 105. urtebetetzea ospatzeko. Ia, bada, osasuna lagun jarraitzen duen Luisak, eta datorren urtean ere egingo diogu tartetxo bat BERRIGARAN, bere urtebetetzean zorianak emateko.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Ion Murgizu

Orotariko pintura

Iztukuak

Papereztatzeak

Imitazioak

Esozia etorbidea 24, 2. behea

SORALUZE

943 75 13 24 / 652 777 030

iiion@euskalnet.net

JAKINA



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. **Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.

Jakina, zurekin pentsatzen.

FAGOR 

Sukaldeko altzariak



JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.

BERRIGARA

BERGARA / ANTZUOLA / ELGETA

Bergarall,
Antzuolan
eta Elgetan.

Goibekokale

Kontuola

Berrigara

Goienkaria

Debagoieneko
berri denak

GOIENKARIA
EDIZIO EKIN-
DEBAGOIENEAN

Prentsa idatzaren lehen aurrekariak erromatar garaikoak diren arren, prentsa modernoaren hastapenak XVII. mendean koka daitezke, *Nieuwe Tijdingen* egunkari belgikarra erregulartasunez argitaratzen hasi zenean.

Debagoiena aitzindari izan da Euskal Herriari herri prentsaren garapenean. 1988an, *Arrasate Press* sortu zen eta, harrezkero, beste bost aldizkari ere badaude eskualdean.

1999an, eskualdeko komunikabideen bateratzea hasi zen eta 2000n, *Goienkaria* jaio zen, eskualdeko aldizkaria.

Orain, urriaren 19an, egungo aldizkariak edizioan batuko dira. Herri bakoitzak oraingo atal komuna eta bere edizioa jasoko ditu.

Arrasaten
eta Aramaion.



Aretxabaletan, Eskoriatzan
eta Leintz Gatzagan.



URRIAREN 19TIK AURRERA, BERRIGARA NEURRI HONETAN, ASTERO

bbk



Aretxabaletako Udala



Gatzagako Udala

ALZA

gertu
INPRIMATEGIA

eitb
euskal irratzi telebista

ULMA

AGOR



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

JAY

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

COPREC

DRUCK

Euskaltel



Felix Iñurrategi - Baltistan
Fundazioa

J A I A L D I A

*elkartasunean
mendia bide*

*Ainhoa Arteta
Kepa Junkera
Mikel Urdangarin
Andoni Egaña
Bideoproiektzioa*

*Mikel Martinez eta Patxo Telleria
Argia Dantza Taldea*

**BILBO • Euskalduna Jauregian
Urriak 12 gaueko 21:45etan**

Sarrerak 94 431 03 10 Tfnoan. salgai

SARRERAK SALGAI:

OÑATI

Izarraitz taberna
943 78 22 47

BERGARA

Ariznoa taberna
943 76 52 30

Bilintx liburudenda
943 76 40 50

ANTZUOLA

Martin okindegia
943 76 64 35

ELGETA

Panaderokua taberna
943 76 82 73

Haize taberna
943 76 82 56

ARRASATE

Monte taberna
943 79 20 56

Sportland (Forum)
943 77 30 72

ESKORIATZA

Namaste belar-denda
943 71 43 27

ARETXABALETA

Arlutz taberna
943 79 32 34

Gurea taberna
943 79 20 64

LEINTZ GATZAGA

Udaletxea
943 71 47 46

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, **ANTZUOLA**. **Kazetaria:** Aintzane Irizar **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate, Gari Bragado **Telefonoa:** 943 76 03 97 **Faxa:** 943 76 29 77.

Antzuolako hamabostekaria, 86. zenbakia. 2001eko urriaren 5a.

Etxe adosatua Mainittan

Petxanima sozietate mugatuak 13 etxe adosatuko ditu

Aurrera doa Petxanimaren egitasmoa. Mainitta azpialdean 13 etxebizitza adosatu egingo dituzte. Horretarako, hain zuzen ere, eratu zuten Petxanima sozietate mugatua, lurrak erosi eta euren etxebizitzak egiteko, alegia. Urte amaieran lanekin hasteko moduan egongo direla espero dute.

Duela pare bat urte, herriko lau lagun elkartu ziren ideia hori buruan zerabilgela. Lursail bat erosi eta etxebizitzak egitea, hain zuzen ere. Baina, pixkanaka-pixkanaka, jende gehiago batu zitzairen. Gaur egun, guztira, 13 bazkide dira; horrek esan nahi du 13 etxebizitza egingo dituztela.

Josu Errasti Petxanimako ordezkariak adierazi digunez, «aspalditik dator ideia hau; 1995ean ere saiatu ginen antzerako ekimen bat abian jartzen, baina hainbat arrazoi izan zirela medio, bertan behera laga behar izan genuen».

Azkenean, Mainitta azpialdeko lurrak erosteko aukera izan zuten, eta halaxe hasi zen egitasmo honen historia. Ordutik hona, harremanetan izan dira Udalarekin. Izan ere, arau subsidiario zaharrek ingurune horretan etxe-multzo handiak egitea aurrez ikusten zuten. Arauen aldaketa puntual baten bitartez, lortu zuten gune horretan 13 etxebizitza adosatu eraikitzeke erabilia izan zedila. Hortaz, nahiz eta bidean oztopotxo batzuk izan, aurrera doaz proiektuarekin.

BI ETXE MULTZOTAN

Halaxe egingo dituzte 13 etxebizitzak, bi etxe multzotan. Baten, bost etxe adosatu egingo dituzte, eta bestean, zortzi.

Sotoa, bi solairu eta teilatupekoa izango ditu etxebizitza bakoitzak. Bi so-



Mainitta azpialdeko gunean egingo dituzte etxebizitzak.

lairuek 140 bat metro koadro izango dituzte. Teilatupekoak erabiltzeko moduko 50 bat metro koadro izango ditu. Bestalde, etxebizitza bakoitzak, atzeko aldean, lursailtxo bat izango du, 42 metro koadrokoa, gutxi gorabehera, lorategi bat jartzeko modukoa.

URTE AMAIERAN HASTEKO MODUAN

Egin dituzten aurreikuspenen arabera, urte amaieran lanekin hasteko moduan egongo dira, eta 18 bat hilabetean etxe-

bizitzak bukatuta egotea espero dute. Batek baino gehiagok pentsatuko zuen, hala ere, dagoeneko hasita daudela. Izan ere, inguruak txukuntzen ibili dira azkenaldian; hango zuhaitz eta saskiak kendu, eta gune hori garbitu egin dute. Horren arrazoiak da azterketa topografikoa eta geoteknikoa egin ibili direla.

Zalantza barik, etxebizitza lortzeko hainbat bide dauden adibidea dugu honako egitasmo hau.

■ ■ ■
Bi solairu, sotoa, teilatupekoa eta lursailtxo bat izango ditu etxebizitza adosatu bakoitzak
■ ■ ■

Astero jasoko dugu Kontuola urriaren 19tik aurrera

‘Goienkaria’ren barruan joango da, itxuraldatuta

Esku artean duzuen hau hamabostean behin jasotzen duzuen azkeneko Kontuola izango da. Urriaren 19an, hamabostekari izateari laga eta astekari bihurtuko da Kontuola; egubakoitzero jasoko duzue zuen etxeetan. Horrela, orain arte baino freskoago iritsiko zaizkizue berriak. Berba bitan esateko, aro berri bat hasiko dugu urriaren 19an, eta egun horretatik aurrera ezer ez da berdin izango Antzuolan.

Ez da nolana hiko aldaketa izango. Batetik, orain arte ez bezala, astero-astero jasoko duzuelako zuen etxeetan. Baina ez da hori izango aldaketa bakarra. Formatua bera ere dezente aldatuko da, eta, horrekin batera, baita edukiak ere. Produktu aberatsagoa lortzea izan da berritasun horien guztien helburua.

Orain arte Din A4 edo aldizkari formatuan egin izan da Kontuola. Hemendik aurrera, berriz, Din A3 edo egunkari formatuan egingo da, eta Bergarako Berrigara eta Elgetako Goibekokale aldizkariekin batera joango da, Goienkariaren barruan. Debagoien osoko albisteak jasoko ditu Goienkariak, orain arte moduan, eta barruan, Elgeta, Bergara eta Antzuolako albisteak jasoko dituzte beste 24 orrialdeko edizioan. Hortaz, Goienkaria bera ere asko aldatuko da, 24 orrialde izatetik 48 izatera pasatuko da eta.

‘KONTUOLA’ BERGARAKO EDIZIOAN

Hiru edizio izango ditu Goienkariak: Arrasatekoa, Aretxabaletakoa eta Bergarakoa, hain zuzen. Lehendabizikoan, Arrasate eta Aramaioko berriak jasoko dira; bigarrenean, berriz, Aretxabaleta, Esko-

riatza eta Gatzagakoak. Kontuola, ostera, Bergarako edizioan joango da, esan bezala. Egoitza ere hantxe izango dute hiru aldizkariak, baita Kontuolak ere. Hemendik aurrera ez da Antzuolako Herri Eskolan egongo, Bergarako Irizar jauregiko egoitzan baino. Hortaz, herritarrek ere haraxe jo beharko dute zer edo zer nahi izanez gero: ekitaldiren baten berri

eman, mezu, ohar, dei, eta abarren berri emateko, hain zuzen ere. Harremanetarako telefonoa 943 76 03 97 da, eta helbide elektronikoa, berriz, airizar@goiena. Helbide horren bitartez, Aintzane Irizar Kontuolako arduradunarekin harremanetan jarri ahal izango zarete. Aintzane Bergarako egoitzan lan egingo duen arren, gertutik jarraituko du Antzuolan gertatzen dena, eta hantxe jasoko ditu albisteak. Bergarako edizioko arduraduna, berriz, Edu Mendibil izango da.

ALBISTEAK BAINO ZERBAIT GEHIAGO

Kontuolaren zeregina ez da izango asteak eman dituen berriak ematea bakarrik; hori ere bai, jakina, baina Kontuola hori baino harantzago doa, eta albiste ez diren bestelako hainbat informazio eskainiko ditu: zerbitzu-informazioa, agenda, elkarrizketak, iritziak... Hortaz, asteak eman dizkigun gertakariez gain, era askotako informazioa zabaltzea izango da Kontuolaren zeregina. Gainera, kontuan hartu behar dugu Antzuola herri txikia dela, eta astekari baterako adina albiste ez dela gertatzen. Horregatik, eta astekari baten oinarri bakarra ez denez albisteen berri ematea, zerbitzu in-



Kontuolaren aurkezpena, 1997ko irailean.

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

Kontuola

Egunkaria

ANTZUOLAKO ASTEKARIA

1997ko martxoaren 14a

Antzuolako gaztetxeak urteurreneko jaiak antolatzen gogor lanean

MARTXOAREN 14A

AHT Galditxeko taldekoak, brebak inguruenak eragotzi dituzten kalteak salatu dituzte, eta bereziki, hainbat erakundek aurkeztutako diruak. Leuzeko Ministerioaren aurka jarritako diru dagokien administratiboko azalpenak bati auzi-erantzun bati.

Orain, Euzko Auzitegiaren Larralde Plaza lekuaren aurkako erakundeak diru-azarpenak, berri, berriak gertatu izan dira. Eskualdeko Auzitegiaren lekuaren aurka. Talo berriak eratu dituzte. AHTren proiektuak ez dituzte ere ezarri izan. Eskualdeko Auzitegiaren inguruetan dagoen erakundeak galditxo bati erantzunak eman dituzte, eta diaduzte erakundeak diruak berriak dituzte. Auzitegiaren.

NOI AZTE HONELA
TVI erakundeak galditxo bati erantzunak eman dituzte. Auzitegiaren erakundeak eta taldeak AHT Galditxo Erakundeak jaiak. Talo berriak eratu dituzte. Auzitegiaren.



Atxekatu, Alabara Herriko 1997ko jaiak antolatzen da. Auzitegiaren leku da.

Alabara Herriko 1997ko jaiak antolatzen da. Auzitegiaren leku da. Auzitegiaren.

diaduzte erakundeak diruak berriak dituzte. Auzitegiaren.

Alabara Herriko 1997ko jaiak antolatzen da. Auzitegiaren leku da. Auzitegiaren.

HERRIKARIEN ITZA/Itza/Itza/Itza

Antzuolako erretiratuak eta Aznarren pentsioak

Herriaren erakundeak erretiratuak eta Aznarren pentsioak. Auzitegiaren.

Herriaren erakundeak erretiratuak eta Aznarren pentsioak. Auzitegiaren.

Herriaren erakundeak erretiratuak eta Aznarren pentsioak. Auzitegiaren.

Herriaren erakundeak erretiratuak eta Aznarren pentsioak. Auzitegiaren.



"Ire galditxo gertatu ziren, hori da."

Kontuolak bi orrialde izango ditu Goienkariaren Bergarako edizioan.

LABOR

Duela pare bat hilabete sortu zuten elkarteak

Duela pare bat hilabete sortu zuten Elkarte Herriko herriko erakundeak eta taldeak AHT Galditxo Erakundeak jaiak. Talo berriak eratu dituzte. Auzitegiaren.

Duela pare bat hilabete sortu zuten elkarteak

Duela pare bat hilabete sortu zuten Elkarte Herriko herriko erakundeak eta taldeak AHT Galditxo Erakundeak jaiak. Talo berriak eratu dituzte. Auzitegiaren.

Duela pare bat hilabete sortu zuten elkarteak

Duela pare bat hilabete sortu zuten Elkarte Herriko herriko erakundeak eta taldeak AHT Galditxo Erakundeak jaiak. Talo berriak eratu dituzte. Auzitegiaren.

Duela pare bat hilabete sortu zuten elkarteak

Duela pare bat hilabete sortu zuten Elkarte Herriko herriko erakundeak eta taldeak AHT Galditxo Erakundeak jaiak. Talo berriak eratu dituzte. Auzitegiaren.

formatibo zabalagoa eskainiko die antzuolarrei.

Bi orrialde izango ditu, esan beazala, *Kontuola* berriak. Lehendabiziko orrialdean asteko berriak izango dira nagusi. Asteko berriekin batera, hainbat herritarren iritzia ere jasoko ditu astekariaren lehendabiziko orrialdeak. Alde batetik, euren iritzi-artikuluak idatziko dituzten lau kolaboratzaile izango ditugu, honako hauek, hain zuzen ere: Jose Mari Ugalde erretiratuaren ordezkaria, Alaitz Jauregi, Beñardo Kortabarria eta Joseba Lezeta. Bestalde, herritarrei galderak egingo dizkiegu hainbat gairen gainean; hamabostean behin jasoko ditugu inkestak horiek.

Herriko baserrien historia ere jaso nahi izan dugu *Kontuolan*, Iñigo Ramirez de Okarizek egindako lana oinarri hartuta. Horrez gain, Arrolak egingo dituen iriteeren berri ere emango dizuegu. Baina ez agendako informazio soil moduan; egingo duten ibilbidearen deskribapen zehatzagoa eskainiko digute, argazki eta guzti.

Azkenik, esan beharra dago elkarriketako ohiko tartearrekin jarraituko duela astekari berriak, eta herriko pertsona ezagunak ezagunago egiten saiatuko garela *Kontuolan*.

LAU URTE ETA GERO...

1997ko irailaren 12an jaso zuten lehendabiziko *Kontuola* zuen etxeetan. Idolaz eta Jardunek egindako akordioaren emaitza izan zen hura. Marijo Deogracias kazetaria izan da aldizkariaren arduraduna urte hauetan, duela hilabete batzuk ardura hori laga zuen arte.

Orain, Debagoieneko euskara elkarte guztiak batuta, Idolaz barne, Goiena kooperatiba osatzen dute. Kooperatiba horren apustu garrantzitsuenetakoa *Goienkaria* izan da, GOITBrekin batera. Abenduan, urtebete beteko da lehendabiziko *Goienkaria* argitaratu zenetik hona. Orain, beste urrats bat egingo du proiektu horrek, eta herri bakoitzak aldizkari propioa izango du Debagoieneko astekariaren barruan.

Kontuolaren formatua aldatu egingo da, eta bi orrialde izango ditu

Albisteez gain, zerbitzu-informazioa ere eskainiko du



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89


Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA **BERGARA**
609 157 131 609 150 164

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1. **ANTZUOLA**
Tf. 943 76 64 34

LEKU-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

Marian Padilla, HHIko irakaslea

«Helduen irakasle izatea oso lan eskertua da»

Laugarren ikasturtea hasi berri du Marianek Antzuolako Helduen Heziketa Iraunkorreko irakasle moduan. Aurten, gainera, lokal berria estreinatu dute; Errekaldetik Herri Ikastetxera pasatu dira. 12 ikasle ari dira Marianekin. Gazteenak 30 urte dauzka; helduenak, berriz, 68.

Noiztik ari zara Antzuolan eskolak ematen?

Aurtengoa Antzuolan nabilen laugarren ikasturtea izango da. Hala ere, duela zazpi urte jarri genuen HHIko ikastetxea Antzuolan. Lehendabiziko hiru urteetan Gurutze ibili zen.

Ordura arte Bergarara etortzen ziren antzuolarrak. Horietako ikasle batek proposatu zuen Antzuolan ere eskola jarzea. Antzuolako Udalaren laguntzarekin, eta ikasle horren laguntzarekin, duela zazpi urte jarri genuen, esan bezala.

Zer irakasten duzue Helduen Heziketa Iraunkorrean?

Idazten eta irakurtzen irakasteko, edo horretan hobetzeko aukera eskaintzen dugu. Kultura orokorreko hainbat gai ere lantzen ditugu, geografia eta matematika, esaterako. Bestalde, orain, euroa datorkigula-eta, hori lantzen ari gara, urtarrilean prest egoteko.

Zelako jendea etortzen da zuen eskoletara?

Badaude idazten eta irakurtzen ezertxo ere ez zekitenak, eta gaur egun alfabetatuta daudenak. Beste batzuk, berriz, idazten eta irakurtzen jakin arren, hobetu nahi dutenak. Bestalde, aipatu behar da gehienak emakumeak izaten direla.

Helduen edo umeen irakaslea izatea ez da berdina izango. Zeintzuk dira



Marian Padilla, HHIko irakaslea.

helduei eskolak ematearen alde on eta txarrak?

Bada, ez, ez da berdina. Nik, gainera, biak probatu ditut. Helduekin lan egitearen gauzarik onena da, oso lan eskertua dela. Ikasleek izugarri eskertzen dizute, eta hori oso pozgarria izaten da. Gainera, euren kabuz eta gogo handiz etortzen direnez, ez duzu euren gainean egon beharrik, oso ikasle finak dira. Bestetik, gauza asko gogoan hartzea kostatzen zaie, horixe da alderdi txar bakarra.

Ikastaroak ere ematen dituzue.

Bai, ikastaroak, hitzaldiak eta bestelako hainbat jardura. Horiek guztiak, baina, Bergaran antolatzen ditugu. Dena dela, Antzuolako ikasleek ere izaten dute ekintza horietan parte hartzeko aukera.

PIRINIOETARA IRTEERA

Urriaren 12a jaieguna denez, asteburua luzea dela aprobetxatuz, Pirinio aldera irteera antolatuta dute Arrola mendi elkarteak. Urriaren 12tik 14ra izango da irteera hori. Hilaren 12an, egubakoitzean, aterako dira goizeko 7:00etan. Aisatik Candanchurako ibilbidea egingo dute egun horretan. Hurrengo egunean, berriz, Candanchutik Formigalera joango dira mendirik mendi. Azkeneko egunean, urriaren 14an, Oturia mendira joatea da Arrolako proposamena. Datorren astelehenean, urriak 8, duzue izena emateko azken aukera, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Tokiz aldatu dute Arrolako egoitza; orain, Kalebarrenen dago, Anparitoren harategi parean. Nagusiek 12.500 pezeta ordaindu beharko dute. Gazteek eta ikasleek, berriz, 7.000 pezeta.

GRAFOLOGIA IKASTAROA AZARORA ATZERATU DUTE



Antzuolako Udalak antolatuta, grafologia ikastaroa egongo da Antzuolan. Aurreko Kontuolan, urriaren 20an hasiko zela iragarri genizuen. Azkenean, baina, atzeratu beharra izan dute, eta azaroaren 10ean hasiko da. Horrela, urriaren 31ra arte, eguaztena, egongo da izena emateko aukera.

DROGAK MINTZAGAI

Antzuolako Udaleko Kultura sailak antolatuta, honako hitzaldia egongo da urriaren 18an, eguena, arratsaldeko 19:00etan, udaletxean: "Zure seme-alabei drogei ez esaten laguntzeko 10 urrats". Hitzaldi hori EDEX kolektiboko kideek eskainiko dute.

ARGAZKI LEHIAKETA

Gogoratu datorren astelehena, urriaren 11, dela argazki lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna. Bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, eta gaia libre da.



Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Magisteritzako heziketa fisikoko espezialidadia ikasi zeban Gasteizen, eta irakaslia da. Amaiak hogeitalau urte dauzka. Udalak antolatu daben aerobic ikastaroko eskolak emoten dihardu, Nuria Rodríguezekin batera. 200 bat emakumek dihardute areobiceko eskoletan.

Zeñei esango zontsake aerobica egitteko?

Edozeñei. Ez da jendiak uste daben moduko gogorra. Nahikua da erritmo pixka bat eukitzia.

Mutillak zergaittik ez die horrenbeste animatzen?

Nesken kontua dala pentsatzen dabelako.

Sasoitsu egoteko sekretu bat?

Kirola egittia, dieta zaintzia eta juerga larregirik ez egittia.

Dieta zaintzen dozu?

Ez. Danetik jaten dot.

Janari eta edari bat?

Lasagna eta ura.

Fisikoari garrantzi haundia ematen jatsu?

Ez, bihar dana bakarrik.

Mutil batengan zertan fijatzen zara lehenengo?

Fisikuan eta irekixa dan edo ez.

Kirolik gustokuena?

Praktikatzeko aerobica eta eskixa. Ikusteko, gimnasia erritmikua.

Lanbidez aldatzekotan?

Fisioterapeuta izatia gustauko litzadake.

Parrandazalia zara?

Noizian behin gustatzen jat parranda on bat egittia.

Tabernak ala diskotekak?

Tabernak.

Parrandarako edari bat?

Zerbezia.

Amaia Carrillo

Liburu bat?

El florido pensil (Sopena).

Filmik gogokuena?

Braveheart.

Aktorarik gustokuena?

Robert De Niro eta Michelle Pfeiffer.

Musika talde bat/Kantari bat?

Manolo Garcia.

Egunkarixan horoskopua irakurtzen dozu?

Bai. Aries zeinukua naiz.

Eta zelakuak zarete Ariesak?

Agintzia gustatzen jaku. Eta lagunengatik onak gara.

Manixa bat?

Automobileko aurreko kristala garbi eukitzia.

Gustoko jantzi bat?

Fraka zabalak.

Kolore bat?

Berdia.

Poltsikoko telefonua erabiltzen dozu?

Bai, bihar dotelako.

Puntuala zara?

Lanerako bai; lagunekin ez hainbeste.

Telebisiñoko programa bat?

Crónicas marcianas.

Ze eroango ziñuke uharte batera?


Mutil bat, musikia eta janari asko.



POL-POL

Taberna

943 76 07 78



MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1

943 76 72 73

Mizpildi 8

943 76 12 32

GURIA


Taberna

Bidekurutzeta 5

☎ 943 76 20 34



☎ 943 76 20 61



Ur~bide

ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea

BERGARA

943 76 00 57

630 261 617

Igeri elkartea igerileku berrien aurreproiektuaren kontra dago

Udalaren egitasmoa igerilarien interesen kalterako dela dio

Bergara Igeri Elkarteko zuzendaritzak salatu egin zuen martitzenean, prentsaurrekoan, Udalak kanpoko igerilekua kentzeko duen asmoa. Igeri elkarteko kideen ustez, gure herrian Gipuzkoako 50 metroko igerileku olinpiarra bakarretakoa izanik, ulertezina da Udalak Agorrosin kirolgunerako landutako aurreproiektua.



Argazkian, martitzenean prentsaurrekoa eman zuten Bergara Igeri Elkarteko kideak.

Udalak agindutako aurreproiektuaren arabera, oraingo instalazioak bota eta hiru igerileku egingo dituzte: igerileku handia igeriketarako (25x25 metro edo 21x25 metrokoa ziurrenik), txikia umeendako eta hirugarren bat aisialdirako. Azken horri estalkia kenduko liokete udan. Beste biak urte osoan estalita egongo lirateke. Udaleko arduradunek datorren urtean hasi nahi dute obrekin.

Xabier Zabaleta Kiroletako zinegotziak Igeri elkartekoei adierazi zenez, «50 metroko igerilekua ezinezkoa da dagoenean mantentzea; ura berotzeko, legeak betetzeko, sakontasuna egokitzeko eta abar igerilekua goitik behera apurtu beharko litzateke. Gure ustez, planteamendu berriekin hobeto erantzungo diegu herritarren premiei».

Carlos Fernandez Igeri elkarteko idazkariak zera adierazi zuen martitzeneko prentsaurrekoan: «herriko hainbat kirol talderekin bildu eta bilera baterako deitu

genituen Udaleko ordezkariak martxoan. Hala ere, Udalak komunikazio falta nabaria azaldu du, eta argi dago ez duela kirol taldeon proposamenak kontuan hartzerik nahi. Eta gaur egun dauzkagun instalazioak izanda, ezin da ulertu proiektu berria. Hobera egin beharrean, txarrera go-

«Ezin da ulertu udalaren proiektu berria. Hobera egin beharrean, txarrera goaz»

CARLOS FERNANDEZ

az». Amaia Andueza Igeri elkarteko entrenatzailearen hitzetan, «Udalaren egitasmoa igerilarien kalterako da argi eta garbi, eta ikasleentzat eta gutxituentzat antolatzen diren ikastaroetarako ere leku gutxiago izango da proiektua gauzatzen bada».

Bestalde, Iñaki Azpeitia Beti-Bustiko kideak gogoratu zuenez, «igerilekuan entrenatzen duen piraguismo talde bakarra gara, eta goi mailan konpetitzen ari diren kirolariak ditugu. Udalak ez gaitu kontuan izan, proiektu berriatik kanpo geratuko ginatekeelako».

ERABILTZAILAEN IRITZIA

Bittor Alberdi Bergara Igeri Elkarteko presidenteak igeriketa defenditzeko beharra azpimarratu zuen: «kirola

egitea defenditzen dugu, eta horretarako igeri egiteko toki aproposa behar da. Udalak gure elkartearen eta igerilekuetako erabiltzaileen iritzia kontuan izan beharko luke. Oso interesgarria litzateke egunero igerilekura datozenen iritzia jakitea. Ez dugu baztertzen Udalaren proiektuaren aurkako firma bilteta egitea».

Gipuzkoan, Donostian, Ordizian, Arrasaten eta Bergaran daude 50 metroko igerilekuak. Horrelako igerilekua kentzea zentzugabekeria da igeri elkartekoen ustez; «instalazio egokirik gabe goi mailako igerilariak izatea ezinezkoa da, eta etorkizunean waterpolo talderik sortzea ere baztertu beharko litzateke», esan zuen Carlos Fernandezek.

Benjamin, alebin eta infantil mailako mutikoak pilota eskolan

Zortzi eta hamalau urte bitarteko 80 bat mutiko ari dira pilota eskolan. Gazte-
txoak joan zen egubakoitze-
an hasi ziren entrenatzen,
Iker Zabaleta eta Reyes Az-
kotia entrenatzaileen agin-
duetara. Astelehenetan 10-
12 urtekoak entrenatuko di-
ra Udal Pilotalekuan,
19:00etatik 21:00etara; mar-
titzenetan, 12 eta 13 urteko-
ak, 19:00etatik 20:00etara;
eguenetan, 13 eta 14 urte-
koak, 19:00etatik 21:00eta-
ra; eta, azkenik, egubakoi-
tzetan, 8-10 urtekoak,
17:00etatik 19:00etara. Izena
emateko epea urriaren 19ra
arte zabalik izango da.



Pilota eskolan ari diren benjaminak eta alebinak, Reyes Azkoitia eta Iker Zabaleta entrenatzaileekin.

PILOTA BULTZATU

Iker Zabaletak (22 urte) bost urte daramatza pilota eskolan. Bere hitzetan, «eskolaren helburua mutikoei pilota zer den erakustea, pilotarako zaletasuna piztea da. Telebistari esker pilota zaletasunak gora egin du azken urteetan, eta gaztetxo

ugarri ari dira gurekin. Gainera, nik uste dut beraientzat motibagarria dela Udal Pilotalekuan entrenatzea».

Pilota eskolan ari diren mutikoei eskola arteko txapelketa jokatu dute aste-bukaeretan. Momentuz ez dago neskarik pilota esko-

lan; «pena da Bergaran neskarik ez animatzea, beste herri batzuetan ari direnek maila ona azaltzen dutelako, nahiz eta gutxi batzuk ibili jokoan. Nahi dutenek aukera daukate frontoira etortzeko», dio Ikerrek.

Bestalde, Reyes Azkoitia

haserre azaldu zen Frontoian umezain egoten diren emakumeekin; «behin baino gehiagotan umeak kantxaraino sartu izan zaizkigu, eta uste dut euren ardura dela umeak behar bezala zaintzea, egunen batean istripuren bat ez gertatzeko».



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefonoz Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekuruzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

Nutrizio ikastaroa

Gaiak:

- Proteinak, karbonohidratoak...
- Janari taldeak
- Errazioak
- Mediterranear dieta
- Gaixotasunak
- Etiketak

Noiz:

Urriaren 15a, 18a, 22a eta 25a. 19:00etatik 20:30era


Non:

Kartzela zaharrea

Prezioa:

Bazkideek, 2.000 pezeta.
Gainerakoek, 2.500 pezeta.
Informazioa: 943 76 36 61

Izena emateko azken eguna: urriaren 10a



IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Fontsiren omenezko mendi bizikleta proba zapatuan

Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta, zapatuan, urriaren 6an, XI. Fontsi Memoriala mendi bizikleta ibilaldia jokatu da. Ibilaldia arratsaldeko 16:00etan hasiko da Seminarioko patioan. Hamalau urtetik gorakoentzat 40 kilometroko zirkuitua prestatu dute antolatzaileek, eta 14 urtetik beherakoek, berriz, 16 kilometro egin beharko dituzte. Lokatzak herriko zale guztiei proban parte hartzeko gonbidapena egiten die. Izena ematea 15:00etatik aurrera egin beharko da Seminarioan bertan. Federatuek 500



Aurtengoa, Fontsi Memorialaren XI. ekitaldia izango da.

ARTXIBOA

pezeta ordaindu beharko dituzte, federatu gabeek 700 eta, azkenik, 14 urtetik beherakoentzat doanekoa

izango da. Zapatuko proban parte hartzeko kaskoa erabiltzea beharrezkoa izango da.

'Txistu' Peña Athleticeko presidente berria

Juan Mari Azpiazu "Txistu" da Bergarako Peña Athleticeko presidente berria. Joan zen egubakoitzean egindako batzarrean athleticzaleek erabaki zuten, presidenteordea Pedro Maiztegi izango da, idazkaria Mikel Odriozola, Jesus Mari Gallastegi "Kuxi" k diruzain lanak beteko ditu eta, azkenik, Xabi Momoitio eta Izaro Aperribai zuzendaritzako batzordekideak izango dira. Urteko kuota (nagusiek 5.000 pezeta; 16 urtera artekoek 2.000) ordaintzeko epea zabalik dago Euskadiko Kutxan irekitako kontuan (1891016262).

LABEGARAIETA FUTBITO TXAPELKETA

Astebukaerako partiduak

ZAPATUAN (BARRUAN)

- 11:30. Biciprecision Igartua-Eri Patxaran Team
- 12:30. Patxaran Team-Bildurbarek Eri
- 16:00. Etengabe-T.H.T Pagomendi
- 17:00. Pagomendi-Errotagain Amoskibar
- 18:00. Amoskibar-Irubide jatetxea Komando Piperrak
- 19:00. Komando Piperrak-Torrekua Irubide

- 16:00. Irubide jatetxea-Bar Canalejas Bayer
- 17:00. Bayer-Dedo Pafarru Vacalouras
- 18:00. Vacalouras-Amoskibar Dedo Pafarru

DOMEKAN (KANPOAN)

- 11:30. Txipiron-Artekale pizzeria Errotagain
- 12:30. Errotagain-Ortzi Txipiron

DOMEKAN (BARRUAN)

- 09:30. Guasa Team-Bar Ugarte Kanpazar Harrobia
- 10:30. Kanpazar Harrobia-Agirrebeña jatetxea Guasa Team

Oharra: Astebukaera honetako jardunaldian fitxa gabeko jokalariek ezin izango dute jokatu. Kontrako kasuan, bere taldeari partidua galdutzat emango diote.

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI

943 76 20 49 943 78 24 13

karteldegia

FUTBOLA

- Bergara-Urki**
Bigarren mailako kadeteak
Zapatua. 12:00. Ipintza
- Bergara-Ordizia**
Preferente maila
Zapatua. 16:30. Agorrosin
- Bergara-Aloña Mendi**
Ohorezko mailako kadeteak
Zapatua. 17:30. Ipintza
- Bergara-Antzuola**
Lehen mailako gazteak
Zapatua. 19:00. Ipintza

ESKUBALDIA

- Bergara-Donibane**
Senior mutilak
Domeka. 12:15. Kiroldegia



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA



**Asteazkena,
hilak 10, 19:00etan**

**INAUGURAZIO
MUNDIALA**


**Gonbidatuta
zaudete!**

Kruz Gallastegi 3

**KAI
TABERNA**



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa


Zein etxetan dago ezkerreko farola eta zein kaletan eskumakoa?

galde debalde

1. Honako zein esanahirekin lotuko zenuke *fritzixa* bergarar hitza?
A- Piztia
B- Ziprztina
C- Lore gorria

2. Zein da Bergara Igeri Elkarteko presidentea azken urteetan?
A- Amaia Andueza
B- Bittor Alberdi
C- Carlos Fernandez

3. Zein izen zuen Ondartza baserriari lotuta zegoen ermitak?
A- San Migel de Ondarza
B- San Adrian de Ondarza
C- San Anton de Ondarza



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Irene Santamaria**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Ireneri!
Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Michele Angiolillo**
Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Skip
garbigarria, 18 ontzitxo
845 PTA!
(5,03 e.)

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Bihar, zapatua, gregorianoa eta eguenean antzerki emanaldia Udazken Kulturean

Bihar, zapatua, Udazken Kulturala hasiko da. **Donosti Ereski Schola Gregorianistak** gregoriano kontzertua eskainiko du **Mariaren Lagundian**, eta eguenean, hilak 11, **Los colegas de la Vega** antzerki taldeak *Ojalemos que aplausen* lana eskainiko du **Novedades**en.



Irudian Los colegas de la Vega antzerki taldeko sei kideak.

Donosti Schola Gregorianistaren kontzertua Mariaren Lagundia ikastolako elizan izango da, 19:30ean, doan. Talde horrek, gainera, badu berezitasun bat: gregorianoa abesteaz gain, kantu mota horren jatorria eta hainbat bitxikeria ere azaltzen ditu emanaldietan. Ordu bete inguru iraungo du, eta hiru atal nagusi ditu: lehenengoan, gregorianoa-

ren jatorriaz, gregorianoak dituen askotariko adierazpenez eta Donosti Ereski Schola Gregorianistaren kantatzeko estiloaz jardungo dute, baita adierazpen aniztasunaz jabetzeko hiru obra guztiz ezberdinak abestu ere. Bigarrenean, orduen liturgia zer den azal-

duko dute, eta, gero, liturgia oinarri duten hainbat kantu eskainiko dituzte. Hirugarren atala zabalagoa da, eta, kantuez gain, Euskal Herriko gregorianoaren inguruko iruzkinak egin eta gregorianoaren eta euskararen arteko bateragarritasunaz jardungo dute, besteak beste.

SALAMANCATIK TXALOAK JASOTZERA

Salamancako Vega auzotik Los colegas de la Vega antzerki taldea hurbilduko da herrira hilaren 11n. *Ojalemos que aplausen* antzezlan eskainiko dute, **Novedades** aretoan, 22:30ean.

Ojalemos que aplausen adin guztietarako antzezlan da. Esketxez osatutako lana da, hamabost, guztira; esketx baregarri eta mimoz jantziak, eta egunero edozeini gerta dakizkiokeen gertakariak parodiatzen dituzte.


Sei mutilek osatzen dute taldea, eta zuzendaria Maribel Iglesias da. Seiak mimoan iaioak dira, eta esketxetan barbarik egiten ez duten arren, euren gorputzaren abileziak ulertzera emango dute azaldu nahi dutena.

Jose Antonio Laskurain bergararraren kartelak iragarriko du San Joxepeko V. Kultura Hamabostaldia

Astelehenean, hilak 8, hasiko den San Joxepeko Kultura Hamabostaldia badu kartel iragarlea. Urtero bezala, Hamabostaldia iragartzeko kartel lehiaketa egin du San Joxepeko. Aurten irabazlea, Jose Antonio Laskurain bergararra izan da. Guztira hiru lan aurkeztu dituzte, eta epaimahaia, saria Laskurainen lanari ematea erabaki du.

Bosgarren Kultura Hamabostaldiko gaia honakoa da: 'Nagusien parte hartzea gaur eguneko gizartean'. Hori horrela, San Joxepekoek antolatu dituzten ekitaldiek gai hori izango dute ar-

datz. Ekitaldiak, Javier Elzo EHuko soziologia irakaslearen hitzaldiak hasiko ditu, astelehenean, 19:30ean, Miguel Altunan.



Nola ikusten dituzu nagusiak?

Gai horretan oinarrituz San Joxepeko antolatutako argazki lehiaketak ere baditu irabazleak. Josu Alzelai legazpiarraren "Alaitasunez dantzan" lanak (irudian) jaso du lehen saria kololetan. Zuri-beltzean Javier Fernandez berangoarraren "Canario" argazkiak. Guztira 13 lagunek hartu dute parte.



Arrasateko Maritxu Kajoi jaian, 1979

Gaur, urriak 5, Maritxu Kajoi txikiteroen jaija ospatuko da Arrasaten. Urriko lehendabiziko egubakoitzean ospatzen den jai honek jende ugari erakarri izan du beti, eta bergarar asko ere joaten da urtero aldameneko herrira jai-giroan murgiltzera. Tradizioak dotore jantzita joatea eskatzen

du, eta horixe egin zuen argazkiko koadrilak 1979 urtean. Argazkia Arrasateko Portaloian ateratakoa da, eta alboan duten automobila eurena ez izan arren, hor dira Labegaraietako lagun hauek gorbata, eskapulario, makila eta guzti. Argazkikoek 18 urte zituzten orduan eta zapatuan, urriaren 6an, kintada

izango dute 1961ean jaiotako bergararrekin batera. Hara hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

Jose Luis Loidi "Rosli", Juan Carlos Arietaleanizbeaskoa, Aitor Gorosabel, Iñaki Zangitu, Iñaki Larrañaga eta Santos Gorria "Nitxi".



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



Zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA



GUREN

PINTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

Astebukaeretan ez dakizula zer egin?

9 eta 11 urte artian baldin badauko zu (4., 5. eta 6. maila), kartzela zaharrian aukera bikaina dauko zu

- Zapatuetan eta domeketan arratsaldeko 4retatik 8retara.
- Karneta egitteko 2 argazki eta urteko kuota bat: 3.600 pezeta.
- Urriaren 6xan hasiko ga!

Eskulanak
 Jolasak
 Bideo emanaldixak
 Irteerak
 Akanpadia
 Berbetan egitteko txokua...
 eta hile bukaeretan *Trumilka eguna*

Eta gainera hau dana euskal giruan!



ASTE BURU HONETAKO EGITARAUA

Zapatua, 6: Futbolin eta ping-pong txapelketak

Domeka, 7: Jolasak: traineru jolasa, zapi-jolasa, ezkutaketa erraldoia...



Bergarako MERKATARIOK, adi!

Zuen iragarkia
GOITBn agertzeko
 aukera paregabea!

Spotak • Miniespotak • Teletestua • Gaininpresioak

Deitu 943 76 03 97
 telefonora!



GRUPO

RKUZ

1950-2001




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik